



**orereta  
ikastola**  
AURRERA!



hezkuntza-katalogoa





**orereta**  
**ikastola**  
AURRERA!

## AURKIBIDEA

<b>0-18 hezkuntza-proiektua</b> .....	6
<b>Azpiegiturak</b> .....	20
<b>Zerbitzuak</b> .....	23
<b>Eskolaz kanpoko ekintzak</b> .....	24
<b>Antolaketa eta kudeaketa</b> .....	26
<b>Informazio praktikoa</b> .....	28
<b>Zergatik Ikastola?</b> .....	34

**Ongi etorri, aurrera. Orereta Ikastolan zaude.  
Herritik eta herriarentzako sortu ginen, zuretzako ere bai.**

60. hamarkadan ireki genituen ateak, orain mende erdia baino gehiago, euskarari eta euskal kulturari oinarritutako kalitatezko hezkuntza-eredu propioa behar zela eta posible zela sinetsita. Egun, horretan sinesten jarraitzen dugu eta posible dela esan dezakegu. Hala erakutsi digu orain arte egindako bideak, emaitzak horren lekuko. **0-18 urte arteko kalitatezko hezkuntza-proiektu eraldatzailea, euskalduna, nazionala eta burujabea da gurea, Euskal Herrian, euskarari zein euskal kulturari oinarritua eta beste hizkuntza nahiz kulturei irekia.**

Aitzindariak izan ginen eta hala izaten jarraitzea dugu desio. **Aurrera egin nahi dugu: pedagogia eraldatzaileak oinarri, ikastola gizartearen beharretara egokitu eta aurrera egiteko prest izango diren pertsonak hezi nahi ditugu.** Hezkuntza akademikotik haratago, pertsona baikorrak, berengan konfiantza dutenak, akatsei beldurrik ez eta haietatik ikasten dutenak, aldaketen aurrean kikiltzen ez direnak, ezintasunei aurre egiten dietenak, eta laguntza eskatu zein eskaintzen duten pertsonak hezteko dugu xede. **Pertsona biziak, aurrera egingo dutenak.** Berezkoa dugu hori ikastolok. Horixe egin dugu gure sorreratik gaur arte ere: ikastola aurrera atera. Eta ikastolatik pasatzen direnek ere bizitzari aurrez begiratzea nahi dugu, bizitzan aurrera egiteko modua baita hori.

**Irabazi asmorik gabeko herri onurako kooperatiba izanik, etengabeko hobekuntzaren eta ikastolako komunitate osoaren elkarlanaren fruitua duzu liburuxka honetan topatuko duzuna: Orereta Ikastolaren proiektua, denon artean egina. Denona eta denontzako; zuretzako ere bai. Sartu, aurrera. Gustu baduzu, zure etxean zaude.**

---

**IKUSMIRA:** Ikastola ereduari sinesten dugu. **Herritik herriarentzako sortutako hezkuntza-eredu propio euskalduna, burujabea eta kalitatezkoa posible da**, frogatu dugu; emaitzak dira horren isla.

**EGINKIZUNA:** Ikastolaldia bukatzean, **bere bizitzako edozein egoerari erantzuteko gaitasuna izango duen pertsona** euskaldun, konprometitu, libre eta zoriontsuak hezteko da Orereta Ikastolaren misioa.

**BALOREAK:** Euskalduna, Euskal Herrikoa, herritarra, bertakoa, hezkuntza-eredu propioa, irekia, parte-hartzailea, komunitarioa, bizia, kalitatezkoa, ekintzailea, berritzailea, berdea eta eraldatzailea da Orereta Ikastola.

---

Gehiago jakin  
nahi duzu?



## Hezkuntza-proiektua

# PEDAGOGIA ERALDATZAILEA

Hezkuntza ezinbesteko tresna da etorkizuneko gizartea eraikitzeko. Ikastolen Elkarteko ikas-material propioa eta korrante pedagogiko berriak aztertu, hausnartu, gure behar eta errealitatera egokitu eta abian jartzeko ahalegin etengabearen fruitua da Orereta Ikastolaren hezkuntza-proiektua. Proiektu propioa, haur eta gaztetxoengatik oinarri eta autonomia helburu dituena.



## Hezkuntza-proiektua: Haur Hezkuntza (0-6 urte)

# Zimendu sendoak, aurrera egiteko

» **Lehen urteak dira garrantzitsuenak haurren garapenean. Horixe da gure premisarik handiena.**

Lehen urteak dira garrantzitsuenak haurren garapenean. Horixe da gure premisarik handiena. Izan ere, haurrak etapa honetan hasten dira lantzen adimen-gaitasunak, nortasun-ezaugarriak, gorputzaren ahalmenak, eta sozializatorako zein harremanetarako oinarriak, besteak beste. **Zimendu sendoak eraiki behar dituzte gerora horren gainean altxatu ahal izateko, aurrera egiteko.**

Orereta Ikastolak haur eskola zein bi urtetik aurrerako gelak eskaintzen ditu. Batean zein bestean, **ikaslearen beharretatik, nahietatik, gustuetatik, jakin-minetik abiatuta egiten dugu lan.** Finean, haurren senetik eta erritmotik abiatuta aritzen gara; bera da bere bizitzako protagonista, gu bere bidelagun gara. Konfiantzaren eta integrazioaren pedagogia abiapuntu, beste zenbait korrante ere kontuan hartuta, haurra proiektu eta prozesuaren erdigunean jartzea dugu xede. **Profesionalen formazio jarraiaz gain, espazioak ere erronka horri erantzuteko prestatuta daude.** Zirkulazio liberako, harremanak garatzeko, autonomia lantzeko, senak dioena garatu ahal izateko... erabat berrituta eta egokituta daude Ikastolako espazioak. **Aurrerapauso hori egin dugun lehenak izan gara herrian.**

**Orientazio mintegiak lan eta leku berezia** betetzen du Orereta Ikastolan. Haur Hezkuntzako etapan, behaketa lanak garrantzi handia du. Maila prebentiboan beharrik antzeman ez gero, esku hartzen da ikaslearen premiei erantzuteko. Horretarako, bi espezialistarengana jotzen da: psikomotrizista eta logopeda.

**Haur Hezkuntzan sarrera ordu malgua eskaintzen dugu,** haurren zein familien erritmoak eta beharrak gehiago errespetatzeko helburuz.

Hezkuntza-proiektua: Haur Hezkuntza (0-6 urte)

# Espazioa, hezkuntza-beharretara egokitua

Orereta Ikastolako Haur Hezkuntzako proiektu pedagogikoaren oinarria haurren ongizatea eta konfiantza dira; haien autonomia, berriz, helburua. Haurra gaitasunez betetako pertsona dela eta ikasteko berezko gaitasuna duela sinetsita, behatzeko eta lan egiteko modu berritzaileak jorratzen ari gara. Bide horretan irmo aurrera egin ahal izateko, **espazioak ere horri erantzuteko prest daude: erabat eraberrituta eta egokituta.**

Ongizateak giro eta ingurugiro osasungarrien beharra du eta hori haurrek beraiek, familiek, profesionalak, materialek eta, batez ere, berdinekiko harremanek aberastuko dute.

» ***Ikastolako eraikinak eraberrituta daude.***

Jolasa da beste zimendu garrantzitsu bat. Haurrak airea bezainbeste behar du jolasa, bizitzen ari den mundua ulertu eta kudeatzen ikasteko. Jolasaren eta esperimentazioaren bitartez norberaren erritmoak errespetatzea lortzen da; autonomia, talde-lana eta harremanak aberasten dira, eta, guztiaren gainetik, haurrak bizitzan aurrera egiteko beharrezkoa izango duen konfiantza garatuko du.

**Espazioen antolaketa funtsezkoa da horretarako guztirako, giro eta ingurugiro osasungarriko zein jolaserako eta esperimentaziorako.**

Gehiago jakin  
nahi duzu?





Hezkuntza-proiektua: Haur Hezkuntza (0-6 urte)

# Proiektu pedagogikoan txertatutako baso-eskola propioa

**Aire zabaleko gune pedagogiko propioa dugu Orereta Ikastolan**, gure hezkuntza-proiektu osoaren parte izan, eta hura indartzeko, aberasteko eta osatzeko. **Hezkuntza-proiektuaren oinarri eta helburu pedagogiko berberak ditu baso-eskolak. Ez da haren osagarri, haren parte baizik**; ohiko eskola-jardunean egiten dena aire zabalean ere egin ahal izateko (esplorazioa, matematika...). Basoa ikasgela bat bezain Ikastola da.

Basoan lantzen diren edukiak curriculum ofizialean oinarrituta daude eta baliabide didaktiko garrantzitsuena natura bera da. Horrez gain, haurraren eta naturaren arteko elkarrekintzari esker, ikasleen garapen osoa bultzatzen da. Momentuz, HH3tik LH2ra arteko ikasleek erabiltzen dute modu jarraian eta sistematikoan.

Basoa hezkuntza-proiektuan integratzeak bereizten du Añabitarteko baso-eskola ezagutzen ditugun ohiko beste baso-eskoletatik. **Orereta Ikastola da hori egin duen Euskal Herriko lehen ikastetxea.**

» ***Aire zabaleko gune pedagogiko propioa dugu Orereta Ikastolan.***

Gehiago jakin nahi duzu?



Hezkuntza-proiektua: Lehen Hezkuntza (6-12 urte)

# Jakitetik jardutera, aurrera egiteko

Konpetentzietan oinarrituta egiten dugu lan. Jakitearen paradigmatic egitearen, erabiltzearen, paradigmara egin dugu jauzia. Izan ere, **Ikastolaren egitekoa ez da irakastea soilik, pertsona osoaren garapenaz arduratzea baizik**. Haurren alderdi fisikoa, kognitiboa, komunikatiboa, soziala eta afektiboa izaten ditugu kontuan Ikastolan: pentsatzen eta ikasten, elkarrekin egiten, norbera izaten, eta ekiten nahiz egiten ikasten dugu. Finean, **gaztetxoak bizitza osoan ikasten jarraitzeko prestatzen ditugu, aurrera egiten ikasteko**.

» ***Konpetentzietan oinarrituta egiten dugu lan. Jakitearen paradigmatic egitearen, erabiltzearen, paradigmara egin dugu jauzia.***

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen urteen arteko zubia sendotzeko lanean ari gara, batetik besterako jauzia jarraia, ziorra eta samurragoa izan dadin. Besteak beste, ikasturteko lehen hilabeteetan garrantzi berezia ematen zaio talde-kohesioari eta elkar ezagutzeari, Haur Hezkuntzan aplikatzen diren egitura pedagogikoak (zirkulazio librea...) LHko lehenengo mailetan txertatzen hasiak gara, eta LH 1. mailan bakarkako guraso-bilerak maiztasun gehiagorik egiten ditugu irakasle eta familien arteko harremana estutu eta seme-alaben egokitzapena gertutik jarraitu ahal izateko. Aipatutakoaz gain, arte-hezkuntzak leku propioa eta garrantzitsua izateko apustua egin dugu.

**Lehen Hezkuntzako azken zikloan, ikastolek berariaz sortu eta garatutako EKI proiektuarekin egiten dugu lan.** Proiektu berritzailea da EKI, kompetentzietan oinarritua eta irakasgaien integrazioaren bitartez Euskal Curriculumua garatzen duen proiektu berritzailea.

EKI proiektuak pertsonaren garapen osoa eta integrala du helburu. Egoera errearen aurrean, ikasleak egoera horretan behar dituzten baliabideak bilatzen eta erabiltzen ohitzen dira, bakarrik nahiz talde-lanean irtenbideak aurkitzen dituzte, eta ikasi dutena egoera berrietan baliatzen dute. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoan ere EKlrekin egiten dugu lan.

Aipatu, baita ere, **kompetentzia digitalaren lanketa unitate didaktiko guztietan txertatu dela.** IKTak hezkuntzaren zerbitzura jarri eta, haien bitartez, onura pedagogikoak indartu dira.

**Orientazio mintegiak lan eta leku berezia betetzen ditu Orereta Ikastolan.** Lehen Hezkuntzako lehen urteetan, hizkuntzari, bereziki irakurketa-idazketari, eskaintzen zaio arreta. Hala, ikaskuntza kooperatiboaren, bizikidetza aintzat hartzen duen berdinen arteko harremanaren zein oinarritzko kompetentziak oinarri dituen irakaskuntzaren jarraipena ere egiten da. Halaber, aurretiaz antzemaniko kasu konkretuei heltzen zaie eta balizko kasu posible berriak antzeman ahal izateko estrategiak ere baditugu.

Gehiago jakin  
nahi duzu?



Hezkuntza-proiektua: Lehen Hezkuntza (6-12 urte)

## Ikasgelak atari zabalean

Ikastola inguru berdean, mendialdean, egoteak kompetentziak ikasgelatik kanpora lantzen ere laguntzen digu. Eta horretarako, belardi eta zuhaitzez gain, aire zabaleko gune pedagogikoak ditugu gure hezkuntza-proiektuaren parte izan eta hura indartzeko, aberasteko eta osatzeko: **baso-eskola, baratzea, enbor-gelak eta autokonposta-gunea.**

Baso-eskolak giza-eraginik izan ez duten guneetan lan egiteko aukera ematen digu (ikus 21. orrialdea), eta Añabitarteko baratzeak, berriz, aukera bikaina eskaintzen digu ortuaren erritmoez ohartzeko,

» *Ikastola inguru berdean, mendialdean, egoteak kompetentziak ikasgelatik kanpora lantzen ere laguntzen digu.*

natura zein emankorra eta jakintsua den ezagutzeko, lanabesak egoki eta zuzen erabiltzen ikasteko, euskarazko hiztegia aberasteko zein talde-lanaren garrantziaz ohartzeko. Enbor-gelek ikasgelak kanpora ateratzeko aukera ematen digute, besteak beste. Autokonpostarako guneak ere badira Ikastolan.



# KiVa programa, eskola-jazarpenaren prebentzio eta kudeaketarako egitasmo berritzailea

**KiVa programa bullying edo eskola-jazarpenaren prebentzio eta kudeaketarako egitasmo berritzailea da**, jazarpenaren beraren eta haren mekanismoen gaineko punta-puntako ikerketak egin eta baliatuz Finlandiako Turku Unibertsitateak garatua, herrialde hartako Hezkuntza eta Kultura Sailaren babesarekin.

KiVan ekintza orokorrak eta berariazkoak uztartzen dira. Lehenak (KiVa curriculum-a) ikasle guztiei zuzenduta daude eta jazarpenaren prebentzioa dute helburu. Berariazko ekintzak, berriz, jazarpen-kasuak hautematean jartzen dira martxan. Jazarpena kudeatzeko eta gelditzeko neurriak dira.

**KiVak ikastetxe bakoitzaren egoeraren etengabeko jarraipena egiteko baliabideak eskaintzen ditu.** Horiek horrela, programaren ezarpenaren eta haren emaitzen berri jasotzen dugu. Emaitzak positiboak dira.

Lehen Hezkuntzan hasi ginen KiVa programa lantzen eta, hor sendotuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere txertatuta dago gaur egun.

## Hezkuntza-proiektua: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)

# Erabaki-gaitasuna, aurrera egiteko

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, arlo kurrikularraren garrantzia ezagutu eta sakontzen dugu.**

**Konpetentzietan oinarrituta lan egiten jarraitzen dugu DBHn ere.** Jakitearen paradigmatic egitearen, erabiltzearen, paradigmara egin dugu jauzia. Izan ere, Ikastolaren egitekoa ez da irakastea soilik, pertsona osoaren garapenaz arduratzea baizik. **Gazteak bizitza osoan ikasten jarraitzeko prestatzen ditugu, aurrera egiten ikasteko.**

Horretarako, **EKI proiektu berritzailean oinarritzen dugu gure lana.** Ikastolek berariaz sortu eta garatutako proiektua da EKI, konpetentzietan oinarritua eta irakasgaien integrazioaren bitartez Euskal Curriculumara garatzen duena. EKI proiektuak pertsonaren garapen osoa eta integrala du xede. Egoera errealean aurrean, ikasleak egoera horretan behar dituzten baliabideak bilatzen eta erabiltzen ohitzen dira, bakarrik nahiz talde-lanean irtenbideak aurkitzen dituzte, eta ikasi dutena egoera berrietan baliatzen dute.

Badira urte batzuk EKIrekin lan egiten dugula. **Emaitzak onak dira eta proiektua Ikastolara egokitzen dihardugu orain, proiektua gure behar eta nahietara egokitzen.**

Aipatu, baita ere, **konpetentzia digitalaren lanketa unitate didaktiko guztietan txertatu dela.** IKTak hezkuntzaren zerbitzura jarri eta, haien bitartez, onura pedagogikoak indartu dira. Hori gauzatu ahal izateko, besteak beste, ikasle bakoitzak bere ordenagailu propioa du eta harekin egiten du lan ikasgelan. Horrez gain, **Ikastola inguru berdean, mendialdean, egoteak konpetentziak ikasgelatik kanpora lantzen ere laguntzen digu.**

Gazteak lan-mundura zein goi-mailako ikasketetara bideratzea da gure egitekoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, haien bidelagun izatea. Horretarako, **orientazio-departamentuaz gain, beren bidea itxuratzen eta marrazten hasteko aukera akademikoa eskaintzen zaie ikasleei DBHko azken mailetan.**

Aipatu, **eskola jazarpena ekidin eta kudeatzeko KiVa programa** txertatua dugula Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere, Lehen Hezkuntzan hasitako bideari jarraiki eta emaitza positiboekin bermearekin.

» ***EKI proiektu berritzailean oinarritzen dugu gure lana. Ikastolek berariaz sortu eta garatutako proiektua da EKI.***

Hezkuntza-proiektua:  
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)

# Ikasgela inklusiboak, aniztasunaren mesedetan

**Behar jakinak dituzten ikasleei laguntzeko baliabideak** dira pedagogiaren zutabe garrantzitsuetako bat. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa eta Curriculum Aniztasuneko Proiektua martxan dira. Ikasgela inklusiboak ditugu 3. eta 4. mailan. **Horiei esker, behar jakinak edota bereziak dituzten ikasleak hobeto artatzeko aukera du Ikastolak. Ikasgelek bi tutore izatea da ikasle eta familia orori arreta zuzenagoa eskaintzeko aukera ematen duen beste baliabideetako bat.**

» ***Behar jakinak edota bereziak dituzten ikasleak hobeto artatzeko baliabideak ditu Ikastolak. Ikasgelek bi tutore izatea da ikasle eta familia orori arreta zuzenagoa eskaintzeko aukera ematen duen baliabideetako bat.***

Gehiago jakin  
nahi duzu?



## Hezkuntza-proiektua: Batxilergoa (16-18 urte)

# Azken pausoa, bizitzaren eskolan aurrera egiteko

Oiartzo Ikastolan amaitzen dute gure ikasleek Ikastolako ibilbidea. Oiartzungo Haurtzaro Ikastolak eta Orereta Ikastolak sortutako fundazioa da Oiartzo. 90. hamarkadaren amaieran ireki zituen atea eta **batxilergo euskalduna, kalitatezkoa eta aukera zabalekoa** eskaintzea du xede. Haurtzaro eta Orereta Ikastolak bezalaxe, Oiartzo ere Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kide da, kalitatezko euskarazko hezkuntzaren berme.

Ikasleekiko **hurbiltasuna, jarraipen gertua eta ondorengo ikasketetarako zein ibilbide profesionalerako aholkularitza** eskaintzen ditu Oiartzok.

» ***Batxilergo euskalduna, kalitatezkoa eta aukera zabalekoa.***





Hezkuntza-proiektua: Batxilergoa (16-18 urte)

# Eleaniztasuna, ikas-bizitzan egindakoaren uzta

Haur Hezkuntzatik Batxilergora arte lantzen da eleaniztasuna ikastolan, euskara zutabe hartuta. Haur Hezkuntzatik hasita lantzen da ingelesa, eta frantsesa hautazko irakasgaia da Bigarren Hezkuntzan. **Egindako lanaren agiri ofizialak lortzeko aukera eskaintzen da Batxilergoan: HABEren 3. euskara-maila lortzeko prestaketa (AEKren laguntzaz) eta ingeleseko B2 eta C1 tituluak lortzeko Oxford-eko azterketak egiteko aukera (hala nahi duen herritar ororentzat irekia) eskaintzen dira.**




# Orereta Ikastolako ikasleen pertsona-eredua

Ikastolaldia bukatzean, bere bizitzako edozein egoerari erantzuteko gaitasuna izango duen pertsona euskaldun, konprometitu, libre eta zoriontsuaren bidaide izan nahi dute Orereta eta Oiartzo Ikastolek.

**orere**ta



**ikastola**  
AURRERA!



## Azpiegiturak

# HEZKUNTZARAKO AZPIEGITURA ETA ERAIKIN EGOKIAK

Orereta Ikastolak bost eraikin ditu, hiru gunetan banatuta: Haur Hezkuntza herriko erdigunean, Esmalterian (Koldo Mitxelena plaza) eta Linon (Agirre Lehendakariaren plaza); eta Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa Añabitarten, mendialdean.

Haur Hezkuntzan umearen beharretatik, nahietatik, gustuetatik, jakin-minetik abiatuta egiten dugu lan. Finean, haurren senetik eta erritmotik abiatuta aritzen gara; bera da bere bizitzako protagonista, gu bere bidelagun gara. Konfiantzaren eta integrazioaren pedagogia abiapuntu, beste zenbait korrante ere kontuan hartuta, haurra proiektu eta prozesuaren erdigunean jartzea dugu xede. **Profesionalen formazio jarraiaz gain, espazio eta guneak berak ere erronka horri erantzuteko prestatuta daude.** Zirkulazio libererako, harremanak garatzeko, autonomia lantzeko, senak dioena garatu ahal izateko... erabat berrituta eta egokituta daude Ikastolako espazioak. **Aurrerapauso hori egin dugun lehenak izan gara herrian.**

Gehiago jakin nahi duzu?



## Azpiegiturak

### Añabitarte, arnagune bat herrian

**Añabitarten, mendialdean, du Ikastolak bere gunerik zabalena:** espazio berdez inguratutako zein eraikin eta azpiegitura onez osatutako 100.000 m<sup>2</sup>. **Arnagune bat herrian.** Ikasleek jolaserako zein egoteko leku zabalak dituzte, baita pilotalekuak, kantxa estaliak eta futbol-zelaia ere. Añabitarteko inguruneak aukera bikaina eskaintzen digu ikasgelak kanpora ateratzeko ere, naturan eta naturaz ikasteko.

Bertan dago guneari izena ematen dion baserria ere. **Añabitarte baserria da ikasle, langile, familia zein Ikastolako bazkideen elkargune.** Izan ere, eskola orduetatik kanpo, elkarte gastronomiko moduan funtzionatzen du Añabitarte baserriak. Añabitarte biziberritzeko plana martxan da.

Ingurune berde hori eta haren inguruak ahalik eta ongien ezagutu eta haiei ahal bezain bateko etekina ateratzeko asmoz, **orientazio-mapa bat sortzen ari da Ikastola herrian jada egon badiren beste hainbaten osagarri.**

» ***Añabitarten, mendialdean, du Ikastolak bere gunerik zabalena: espazio berdez inguratutako zein eraikin eta azpiegitura onez osatutako 100.000 m<sup>2</sup>. Arnagune bat herrian.***

### Hezkuntza-proiektuan integratutako baso-eskola propioa

**Aire zabaleko gune pedagogiko propioa dugu Orereta Ikastolan,** gure hezkuntza-proiektu osoaren parte izan, eta hura indartzeko, aberasteko eta osatzeko. Hezkuntza-proiektuaren oinarri eta helburu pedagogiko berberak ditu baso-eskolak. Ez da haren osagarri, haren parte baizik; ohiko eskola-jardunean egiten dena aire zabalean ere egin ahal izateko (esplorazioa, matematika...). Basoa ikasgela bat bezain Ikastola da. Momentuz, HH3tik LH2ra arteko ikasleek erabiltzen dute modu jarraian eta sistematikoan.

Basoa hezkuntza-proiektuan integratzeak bereizten du Añabitarteko baso-eskola ezagutzen ditugun ohiko beste baso-eskoletatik. **Orereta Ikastola da hori egin duen Euskal Herriko lehen ikastetxea.**

Gehiago jakin nahi duzu?



## Azpiegiturak

# Orereta eta Oiartzo Ikastolak, ikastetxe kardiobabestu integralak

Orereta eta Oiartzo Ikastolak dira EAEko lehen ikastetxe kardiobabestu integralak. Izan ere, eraikin guztietan desfibriladoreak jarrita egoteaz gain, ikasleek zein langileek osasun arretarako formazio jarraia eta eguneratua jasotzen dute. Emergentziak Osakidetzarekin eta EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearekin elkarlanean aurrera daramagun proiektua da aipatutakoa.

» *Orereta eta Oiartzo Ikastolak dira EAEko lehen ikastetxe kardiobabestu integralak.*

## Energia berriztagarri propioa

Orereta eta Oiartzo Ikastolek energia berriztagarri propioa sortzen duen sistema dute Goiener kooperatibaren eskutik. Ondorioz, kontsumitzen duten energia % 100 berriztagarria da. Sistema honekin, tokian tokiko ekoizpena laguntzen da eta oinarrizko ondasun bihurtu den energia demokratizatu, haren kontrola duen oligopolioari alternatiba emanez eta garapen ekonomikoa bultzatuz.

## % 100 elektrikoa den ibilgailua

Orereta Ikastolaren izaeraren eta baloreen artean naturarekiko errespetua dago. Horregatik, urteak daramatzagu naturaren eta ekologiaren alde ekintza ezberdinak burutzen eta ikasleak balio horietan hezten. Horri lotuta esan, % 100 elektrikoa den furgoneta duela Ikastolak; Ikastolako mantenu-furgoneta, hain justu.



## Zerbitzuak

# HEZKUNTZA-PROIEKTURA ORIENTATUTAKO ZERBITZU OSAGARRIAK

Zerbitzu osagarriez arduratzen diren profesional guztiak Ikastolako langileak dira eta, beraz, zuzeneko harremana dute pedagogia-proiektuan jarduten duten lankideekin. Zerbitzu osagarriak hezkuntza-proiektuan erabat integratzeko apustua egin du Orereta Ikastolak; ikasgelatik haratago, hezkuntza modu integralean lantzeko apustua, hain justu.

## JANGELA

### sukalde propioa eta etxeke otorduak

Adin eta maila guztietako ikasleentzako jangela-zerbitzua eskaintzen du Orereta Ikastolak. Eta badu bereizgarri bat: **otordu guztiak Ikastolako sukaldean bertan prestatzen dira**. Menu bereziak ere prestatzen ditugu, hala behar duten ikasleentzat. Añabitarten dago Ikastolako sukaldea, berritua eta egokitua hori guztia gauzatu ahal izateko. Bertako produktuen aldeko ahalik eta apustu handiena egitea da Orereta Ikastolaren helburua. Bertako ekoizleen produktuak kontsumitzen saiatzen gara, besteak beste, Errigorekin kolaboratuz.

Jangelako begiraleak Ikastolako langileak dira eta hezitzaile formazioa jasotzen dute. Izan ere, otorduak ere egitasmo pedagogikoaren parte izateko apustua egin dugu Orereta Ikastolan, batez ere ikas-bizitzaren lehen urteetan. Haur Hezkuntzako zaharrenekin JAN&ARI proiektua dugu abian. Jatordua eta jangela, ongi jateko espazioa izateaz gain, ikasleen dibertsio eta ikaskuntzarako eremu izatea lortu nahi dugu egitasmo horrekin; finean, heziketa-ingurune berri bat sortzea.

HH2 eta HH3ko haurrek siestarako aukera dute jangela-orduan, bazkalostean.

Gehiago jakin nahi duzu?



## GARRAIOA

### erabiltzaileen neurrirako zerbitzua

Orereta Ikastolak garraio-zerbitzua eskaintzen du. Autobus egokitua dugu irisgarritasuna bermatzeko. Ohiko edo egungo autobus-zerbitzuak heltzen ez diren guneeetako familiei edota kasuan kasuko behar edo egoerei erantzuteko prest gaude. Hori bada zure egoera, ez egin zalantzarik: jarri gurekin harremanetan.

## ZAINTZA-TXOKOA

### eskolak hasi arteko guneko goxoa

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako familiei zaintza-txokoa eskaintzen die Orereta Ikastolak, 07:30etik 09:00etara. Haur Hezkuntzako haurrek gosaltzeko aukera dute (norberak etxetik ekartzen duena).

## FAMILIA-TAILERRAK

### elkarrekin eta elkarlanean, hobeto

Familia haurren hezkuntzaren eta ikas-bizitzaren funtsezko zatia da. Horiek horrela, Ikastolan lantzen diren proiektuen, metodologiaren zein gaien inguruko familia-tailerrak antolatzen ditugu, laguntza eskaini, familien zalantza eta galderak argitu, eta seme-alaben hezkuntzan elkarlanean aritzeko.

## Eskolaz kanpoko ekintzak

# ESKOLAZ KANPOKO EKINTZEN AUKERA UGARIA ETA ANITZA, HEZKUNTZAREN OSAGARRI

HH eta LHko haur eta gaztetxoentzako eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza zabala du Ikastolak. Taldean eta jolastuz ikasten eta trebatzen jarraitzea da ekintza horien guztien helburua. Hezkuntzaren osagarri dira eskaintzen diren ekintza guztiak, aukera ugaria eta anitza.

Hirutan banatzen dugu gure eskaintza:

» **ESKOLAZ KANPOKOAK:** 4 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako askotariko jarduerak dira. **Eguerdian, bazkal aurretik edo ondoren, egiten dira ia denak.** Lau eta bost urteko haurrentzat gisa ezberdinetako tailerrak eskaintzen dira. LHn, aukera **ugaria eta anitza da:** xakea, zirkoa, gitarra, sormena, antzerkia, programazioa eta robotika, jolasak eta psikomotrizitatea... Urtero aztertzen da eskaintza asmo berriak txertatu eta proposamena eguneratzeko.

» *Taldean eta jolastuz ikasten zein trebatzen jarraitzea da ekintza horien guztien helburua.*





## Eskolaz kanpoko ekintzak

» **ESKOLA KIROLA:** 8 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendutako kirol anitzeko jarduera da Eskola Kirola. Oarsoaldeko gainontzeko ikastetxeekin batera, aisialdian ere euskara sustatuz, kirol-ekintza ezberdinak ezagutu eta probatzeko aukera eskaintzen zaie neska-mutilei: euskal pilota, kirol egokitua, herri kirolak, eskubaloia, atletismoa, futbola, saskibaloia, errugbia...

**Entrenamendu-saioak eguerditan edota arratsaldetan izaten dira. Saioak eguerditan ere eskaintzeko apustua egin du Orereta Ikastolak gaztetxo zein familiei Ikastolaz kanpoko beren jardunerako erraztasunak eskaintzeko helburuz. Aukera hori duen herriko ikastetxe bakarra gara.** Entrenamenduak Añabitarten izaten direnez, garraio-zerbitzua izaten da arratsaldeko saioen ondoren herrira jaisteko.

Eskola Kiroleko begiraleak eta koordinatzailea Ikastolako bertako langileak dira. Hezkuntzarekin eta jarduera fisikoarekin lotura duten ikasketak dituzte guztiek.

Aipatutakoaz gain, 8 eta 16 urte arteko haur zein gazteentzat eta beren gurasoentzat asteburutako **mendi-irteerak antolatzen ditu Ikastolak, Urdaburu mendizale elkartearen eskutik.**

» ***Ikastolako egonaldiak irekiak dira hala nahi duen herritar ororentzat.***

» **NEGULEKUAK, BEDATSELEKUAK ETA UDALEKUAK:** opor garaian ere aisialdirako aukera euskalduna eskaintzea da Ikastolako egonaldien helburua. 2 urtetik hasi eta 12 urte arteko gaztetxoei zuzendutako jarduerak dira eta erabateko lotura dute Ikastolaren hezkuntza-proiektuarekin.

Udalekuetan 2-3 urteko haurrentzat hezitzailearen erreferentziak duen garrantziaz jabetuta, haur hezkuntzako ikasketak dituzten hezitzaileak egoten dira haiekin, programazioa zein ekintzak haurren behar, nahi eta interesetara egokituz. 2 urteko haurrentzako gure udaleku-eskaintza bakarra da herrian.

**Ikastolako egonaldiak irekiak dira hala nahi duen herritar ororentzat, ez Ikastolako kideentzat soilik.**

## Antolaketa eta kudeaketa

# PROIEKTU HERRITARRA, IRABAZI ASMORIK GABEA, BURUJABEA ETA NAZIONALA

1400 ikaslek, 1000 familiak eta 180 profesional baino gehiagok osatzen dugu Ikastola. Irabazi asmorik gabeko erakundea, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kidea eta herri onurako kooperatiba gara. Herrikoa eta parte-hartzailea, beraz.

Bazkideek osatzen dute Ikastola eta haiek marraztu bere ibilbidea. Hala nahi duen bazkide zein guraso orok du horretan parte hartzeko aukera. Urteko Batzar Orokorra, Artezkaritza Kontseilua, Hezkuntza Batzordea, Guraso Batzordeak zein askotariko beste hainbat batzorde dira horretarako organoak. **Ikastolako erabaki estrategikoak organo horien bitartez hartzen ditugu, elkarlanean: guraso zein langileen artean, eta Ikastolen Elkartearen proiektu eta material propioen gidaritza eta babespean.**

» ***Hiru administrazio-eremutan banatuta bagaude ere, horrez gaindi, nazionala da gure proiektua.***

Herritarrek osatzen dute, finean, Ikastola. Sortu ere hala egin zen, ekimen herritarrez. Herritarra eta herritarrentzako da Ikastola. **Herrigintzatik jaio ginen eta herrigintzan dihardugu. Herriak sortu gintuen eta herriari zor diogu garena, eta hari egin nahi diogu ekarpena.** Gau Beltza, Mari Domingiren Errepublikak Magikoa, Eguberri bezperako kantu-bira, Esmalteriako Ostiralak, Madalen jaietako taberna, ingeleseko B2 eta C1 mailen ziurtagiriak lortzeko aukera Oxford-en eskutik, HABEren 3. euskara-maila lortzeko ikastaroa AEKren eskutik, aisialdiko begirale titulua lortzeko ikastaroa... antolatzen ditugu herrian edota herritarrentzat, euskara eta euskal kultura zein hezkuntza eta formazioa hauspotzeko xedez.

Aitatu bezala, Orereta Ikastola Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kide da. Euskal Herri osoko

Ikastolek osatzen dugu elkarte. **Hiru administrazio-eremutan banatuta bagaude ere, horrez gaindi, nazionala da gure proiektua eta elkarrekin eta elkarlanean egiten dugu lan.** Zubiak Eraikiz ekimena da gurean horren isla nabarmenetakoa. Urruña, Biriatu, Hendaia, Ziburuko Kaskarotenea eta Orereta Ikastolak elkarlanean sortu eta aurrera daramagun proiektua da Zubiak Eraikiz. Muga administratiboez gaindi, Ikastolen, irakasleen zein ikasle eta familien arteko harremanak sortu eta indartzea; elkarrengandik hain kilometro gutxira egonik, batzuen zein besteen errealitatea ezagutzea; eta Ipar Euskal Herriko Ikastolei sustengua eskaintzea ditugu xede, besteak beste. Bere kokapen geografikoagatik ere, Nafarroa zein Ipar Euskal Herriko administrazio-eremuetatik oso gertu egoteagatik, Orereta Ikastolak lanketa hori egiten jarraituko du etorkizunean ere.

**Orereta Ikastola Elkartasun Ikastolak Europar Kooperatiba Elkarteko kide ere bada.** Elkarrekin honen xedea sortze fasean, garapen fasean edota krisian diren Ikastolak zein proiektuak aurrera atera ahal izatea da. Horretarako, Ikastolen Elkarteko Ikastola guztiek ekarpen ekonomikoa egiten diogu Elkartasun Ikastolari.

Aipatu berri denaren haritik esan, Orereta Ikastolak bere beka-sistema propioa ere baduela behar gehien duten familiak laguntzeko. Izan ere, Ikastola denona da.

Gehiago jakin nahi duzu?



## Antolaketa eta kudeaketa

# Eguneroko lanean, etengabeko hobekuntza da gure premisa

Ikastolaren eguneroko gestioa Kudeaketa Aurreratuaren Ereduan (KAE) oinarritzen da. Lehiakortasunerako eta eraginkortasunerako beharrezkoak diren hobekuntzak bilatzen, topatzen eta bideratzen laguntzen digu horrek. **Kudeaketa Aurreratuari diploma jasoa du Ikastolak Eusko Jaurlaritzaren eskutik.** Etengabe hobetzea da gure premisa.

**Lantalde egonkorra eta proiektuarekin konprometitua** dugu, etengabeko formazioa jasotzen duena. Horrez gain, langileen arteko genero **berdintasun-plana** inplementatzen ari gara eta **Goiener, energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatiba euskalduna, da gure energia hornitzailea.** Kontsumitzen dugun energiaren % 100 berriztagarria da. Sukaldean eta jangelan, Errigorako elikagaiak erabiltzen ditugu, besteak beste; bertako elikagaien aldeko ahalik eta apustu handiena egitea baita Orereta Ikastolaren nahia. Gureak-en "Pauso Berriak" programaren bitartez, dibertsitate funtzionala duen lankide bat dugu jangelako eta sukaldeko lantaldean. Aurrerapauso kualitatiboak dira guztiak, kuantitatiboak baino; ikastola izaera eta filosofiarekin erabat bat egiten dutenak.

**Gipuzkoan emaitza onenak lortzen dituzten ikastetxeen artean gaude.** Ikaslearen arrakasta neurtzeko aldagai bakarra ez den arren, garrantzitsua da emaitza onak lortzea ere.

» ***Gipuzkoan emaitza onenak lortzen dituzten ikastetxeen artean gaude.***



## Informazio praktikoa

### Ordutegia

Gunea	Maila	Goizeko ordutegia	Arratsaldeko ordutegia
Esmalteria	Haur Eskola (HH0 eta HH1)	Sarrera-ordua Goizean: 07:30-09:30 Bazkaldu aurretik: 11:00 Bazkaldu ondoren: 12:30 Irteera-ordua Bazkaldu aurretik: 11:30 Bazkaldu ondoren: 13:00-13:15 Siestaren ondoren: 14:30-15:30 Askariaren ondoren: 16:15-17:00	
	HH2 eta HH3 (***)	09:00 (*)-12:15	14:45 (*)-16:30
	Zaintza-txokoa	07:30-09:00 (**)	
Lino	HH4 eta HH5	09:00 (*)-12:30	14:45 (*)-16:15
	Zaintza-txokoa	07:30-09:00 (**)	
Añabitarte	LH	09:00-13:00	15:00-16:30
	LH zaintza-txokoa	07:30-09:00 (**)	
	DBH	8:00-14:00 (Hedatze arratsaldeak)	
Oiarzo	Astelehenetik ostegunera	07:45-14:30	
	Ostiraletan	07:45-14:25	

(\*) HH2tik HH5era arteko goizeko zein arratsaldeko sarrera-ordua malgua da: 09:00etatik 09:30era goizez eta 14:45etik 15:00etara arratsaldez.

(\*\*) Goizeko zaintza-txokora sartzeko azken ordua 08:45 da. Goizean Linon geratzen diren LHko haurrak 08:30ean sar daitezke, beranduenez.

(\*\*\*) HH2ko haurrak jasotzeko honako aukerak ere badaude: bazkaldu ondoren (13:45-14:00) edo siestaren ostean (15:15-16:30). HH3ko haurrak bazkalostean jaso daitezke: 14:30-15:00.

## Informazio praktikoa

### Tarifak

#### Kuota osagarria

	Senide-kopurua	Kuota-kopurua	Hileko kuotaren zenbatekoa
Haur Eskola, HH, LH eta DBH 1. zikloa	1 edo 2	12	54,90€
	3. senidea		27,45€
DBH 2. zikloa	1 edo 2	12	66,10€
	3. senidea		33,05€
Oiartzo		12	93,00€
Bazkidetza: azpiegitura kuota		1	41,30€ (*)

(\*) Urteko kuotaz gain, bazkide egitean, Oorereta Ikastola Koop. E.ko kapitalera ekarpena egiten da: 60€ familiako.

## Informazio praktikoa

### Tarifak

#### Zaintza-txokoa

	Kontratazio-mota	Kuota-kopurua	Hileko kuotaren zenbatekoa
HH2 (*)	Urtekoa	9	28,00€
HHko gainontzeko eta LHko (**) ikasleak	Urtekoa	10	28,00€

Egun solteak: 5,00€.

(\*) Bi urteko ikasleen kasuan, egokitzapen-programa amaitzen denean hasten da zerbitzua; kasu hauetan, beraz, 9 kuota kobratzen dira.

(\*\*) LHko ikasleentzako goizeko zaintza Linon ere eskaintzen da. Autobusez igotzen dira haurrak Añabitartera (autobus-bidaiaren kostua ez dago sartuta goiko taulako zaintzaren zenbatekoan).

#### Jangela

	Kontratazio-mota	Kuota-kopurua	Menuaren prezioa
HH0	Erabilera jarraia		3,50€
	Egunekoa		4,50€
HH1	Erabilera jarraia		5,00€
	Egunekoa		6,00€
Gainontzeko ikasleak	Erabilera jarraia		6,80€
	Egunekoa		8,50€

HH2 eta HH3ko hurrek siestarako aukera dute jangela-orduan, bazkalostean.

## Informazio praktikoa

### Tarifak

#### Garraioa

	Kontratazio-mota	Kuota-kopurua	Hileko kuotaren zenbatekoa
Egunean bidaia bat edo bi	Urtekoa	10	57,00€
Egunean hiru edo lau bidaia	Urtekoa	10	76,00€
Oiartzo	Urtekoa	10	57,00€

Egun solteak: 3,00€ bidaiako.

#### Eskolaz kanpokoak | Extraescolares

	Kontratazio-mota	Kuota-kopurua	Hileko kuotaren zenbatekoa
Eskola Kirola	Urtekoa	8	16,50€
Jolasak eta psikomotrizitatea	Urtekoa	8	16,50€
HH MusikArt	Urtekoa	8	22,00€
HH tailerra	Urtekoa	8	45,00€
Robotika eta teknologia jarduerak	Urtekoa	8	41,50€
Gimnasia akrobatikoa	Urtekoa	8	42,00€
Xakea	Urtekoa	8	16,00€
Gitarra	Urtekoa	8	33,00€
Antzerkia	Urtekoa	8	25,00€
Frantsesa	Urtekoa	8	56,00€

OHAR GARRANTZITSUA: goian azaldutako kuota guztiak 2024-25 ikasturteari dagozkie. Ikasturte batetik bestera aldaketak egon daitezke.

## Oharrak:

---

### MATRIKULAZIOA

Orereta Ikastolan matrikulatzeko honako dokumentuak behar dira:

- Familia-liburuaren fotokopia
- Udaleko errolda-agiria (bizikidetzeta-agiria)
- Haurraren tutorearen edo tutoreen nortasun-agiriaren fotokopia
- Haurraren argazki bat
- Aukeratutako hurrengo ikastetxeen zerrenda
- Kontu korrontearen zenbakia

### BAZKIDETZA

Haurrak Ikastolan matrikulatzen dituen familia oro izango da Ikastolako bazkide. Hori horrela, bazkide egitean, Orereta Ikastola Koop. E.-ko kapitalera ekarpena egiten da: 60€ familiako. Urteko kuota 41,30€koa da.

### INIKA

Familiek ikasleen jarraipena egiteko duten tresna nagusia Inika da. Plataforma honetan egoten dira eskuragarri, besteak beste, hileko fakturak, ikaslearen kalifikazioak zein Ikastolak familiei egin beharreko ohar nahiz jakinarazpenak.

Ikastolako webgunetik nahiz app-a erabiliz (aukerarik gomendatuena) sar daitezke familiak Inikara. Elebitan dago plataforma. Ikasleak bere lehen ikasturtea hastean erabiltzaile-izena eta pasahitza sortzen zaizkio familia bakoitzari Inikako bere profilerara sartu eta seme-alaben jarraipena egin ahal izateko.

### HIZKUNTZA-POLITIKA

Ikastolak hizkuntza-politika zehaztuta eta adostuta du, Artekarieta Kontseiluaren onespenerekin. Horri jarraiki, Ikastolako hizkuntza nagusia eta lehenetsia euskara da. Ikastolan euskaraz bizi gara eta euskara da gure lan-hizkuntza. Beti bermatuko da familiek informazioarako duten eskubidea, horretarako beharrezko bitarteko eta baliabideak jarriz.

### JANGELA

- Urte osorako edo epe ertain-luzerako kontratazioak kontu korrontetik kobratzen dira hurrengo hileko lehen egunean. Gisa honetako kontratazioetan aldaketak eskatzeko edo kontratazioa martxan jarri zein bertan behera uzteko, 943 52 03 97 telefonora deituz edo Ikastolako bulego batera bertaratuz egin behar da.
- Egun solteak ere kontu korrontetik kobratzen dira. Beranduenez, egunean bertan goizeko 10:00etan kontrata daitezke Inikaz.
- Erabileraren baitan kobratzen da jangela. Ikasleren bat egun batean ez bada jangelara joango, horren berri eman behar da, beranduenez, egunean bertan goizeko 10:00ak baino lehen Inikaz. Hala eginez gero, egun horretako otorduaren erdia kobratuko da.
- Jangela-zerbitzua Ikastolak antolatutako eskolaz kanpoko jardueren baitan kontratatzeko aukera badago. Kasu horietan, jarduera izaten den egunetan eta irauten duen epean erabiliko du ikasleak jangela-zerbitzua, eta hala fakturatuko da.
- Jangela-zerbitzua kontratatuta dagoen astegunekin bat egiten duten irteera-egunetako otorduak ez dira kobratuko.
- Ikastolaren eskumenetik kanpoko gertakari bategatik zerbitzua eskaintzerik ez dagoenean, ez da itzulketarik egingo.
- Dieta berezietarako sendagilearen agiria behar da.



## Oharrak:

---

### GARRAIOA

- Garraioaren kontratazioa urte osorako izaten da. Egun solteak ere kontrata daitezke. Epe luzerako kontratazioan aldaketak eskatzeko, kontratazioa abian jartzeko zein egun solteak kontratazeko Inikaz, 943 52 03 97 telefono-zenbakira deituta edo Ikastolako bulego batera joanda egin behar da. Egun solteetako kontratazioa beranduenez, bezperan egin behar da.
- Urte osorako garraioaren kontratazioa hileko kuota bitartez kobratzen da eta ez da erabileraren baitakoa. Egun solteak ere kontu korrontetik kobratzen dira.
- Bi kontratazio-aukera daude: egunean 2 edo 4 bidaia egiteko aukera eskaintzen da. Asteko egunen batean edo gehiagoan 3 bidaia edo gehiago egingo badira, eguneko 4 bidaiako tarifa kobratzen da, eserlekua erreserbatuta gelditzen baita.
- Ikastolaren eskumenetik kanpoko gertakariren bategatik zerbitzua eskaintzerik ez dagoenean, ez da itzulketarik egingo.
- Ikastolari dagokio garraio-zerbitzuaren antolaketa, geltokien kokagunea eta ikasleari dagokion geltokia zein den erabakitzea.
- Behar-beharrezkoa da ikasleak ikasturte hasieran egokitu zaizkion autobus eta geltoki berak erabiltzea beti. Aldaketak egiteko, dagokion baimena behar da.
- Ikasturtean zehar suerta daitezkeen kasuan kasuko baimenak arduradunari eskatu behar zaizkio (Inikaz, telefonoz edo bulegora joanda).
- Ikasturte osorako zaintzaren kontratazioan aldaketak eskatzeko edo kontratazioa abian jarri zein bertan behera uzteko Inikaz, 943 52 03 97 telefono-zenbakira deituta edo Ikastolako bulego batera joanda egin behar da. Egun solteetako kontratazioa beranduenez, bezperan egin behar da.
- Bi urteko ikasleen kasuan, egokitzapen-programa amaitzen denean hasten da zerbitzua; kasu hauetan, beraz, 9 kuota kobratzen dira.
- Legez, 0-2 urteko haurrak ezin dira Ikastolan 8 ordu baino gehiagoz egon.
- Ikastolaren eskumenetik kanpoko gertakariren bategatik zerbitzua eskaintzerik ez dagoenean, ez da itzulketarik egingo.

### ESKOLAZ KANPOKOAK

- Eskolaz kanpoko ekintza guztiak (opor garaiko eskaintza izan ezik) urritik maiatzera izaten dira eta hala kobratzen dira.
- Eskola Kirola eta "psikomotrizitatea eta jolasak" jarduera barnetik kudeatzen dira. Gainerako eskaintza kanpoko elkarte edo pertsonen laguntzaz eskaintzen da. Ikastolak arduradun bat du hori guztia kudeatzeko.
- Irailean ekintza guztien aurkezpen-bilera egiten da jardueren nondik norakoak azaldu eta hezitzaile guztiak ezagutzeko.
- Eskola Kirolaren kasuan, asteburuetako jardunaldietan parte hartzeko konpromisoa eskatzen zaie familiei eta ikasleei, programak berak hala eskatzen duelako.
- Ikastolaren eskumenetik kanpoko gertakariren bategatik zerbitzua eskaintzerik ez dagoenean, ez da itzulketarik egingo.

### ZAINTZA-TXOKOA

- Ikasturte osorako edota egun solteetarako kontrata daiteke zerbitzua.
- Ikasturte osorako zaintza hileko kuotaz kobratzen da eta ez da erabileraren araberakoa. Egun solteak ere kontu korrontetik kobratzen dira.

# Zergatik Ikastola?

## » Euskalduna delako

Euskaran eta euskal kulturaren ardaztutako proiektu multikultural eta eleanitza garatzen dugu. Horretarako sortu ginen eta horretan jarraituko dugu. Ikasleek euskaraz bizitzeko behar dituzten giroa eta bitartekoak eskaintzen ditu Ikastolak.

## » Bertakoa, herrikoa delako

Herritik, herriarentzat eta herrirako sortutako proiektua gara. Denona eta denontzako, zuretzako ere bai.

## » Euskal Herrikoa delako

Muga administratiboez gaindi, Euskal Herri osoan hezkuntza euskalduna, eredu propioduna eta kalitatezkoa eskaintzen duen hezkuntza-erakunde bakarra gara Ikastolak.

Orereta Ikastolak proiektu propioa du Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko Ikastolekin elkarlana sustatzeko. Elkartasun Ikastolak Europar Kooperatiba Elkarteko kide ere bagara. Sortze fasean, garapen fasean edota krisian diren Ikastolak edota proiektuak aurrera atera ahal izatea da elkarte horren xedea.

## » Berdea delako

Ikastolako ikaslerik gehienak ingurune berdean (Añabitarten) hazten eta hezten dira. Arnasgune bat, herrian. Besteak beste, Ikastolak baso-eskola, baratze eta autokonposta-gune propioak ditu hezkuntza-proiektuaren zerbitzura. Añabitarteko inguruneak aukera bikaina eskaintzen digu ikasgelak kanpora ateratzeko ere, naturan eta naturaz ikasteko.

Ikastolak sukalde propioa du eta bertan prestatzen dira gure ikasle guzti-guztien otorduak. Bertako elikagaien aldeko apustuan, Errigorarekin elkarlanean jarduten dugu, besteak beste.

Goiener, energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatiba euskalduna, da gure energia hornitzailea. Kontsumitzen dugun energiaren % 100 berriztagarria da.

## » Ikaslea jartzen dugulako erdigunean

Haurren jakin-min eta senetik abiatuta, jakitearen paradigmatic egitearen, erabiltzearen, paradigmara egin dugu jauzia. Izan ere, Ikastolaren egitekoa ez da irakastea soilik, pertsona osoaren garapenaz arduratzea baizik. Haur eta gazteak bizitza osoan ikasten jarraitzeko prestatzen ditugu, aurrera egiten ikasteko. Horretara bideratuta daude profesionalen lana zein Ikastolako eraikin eta espazioak.

## » Eraldatzailea delako

Gizartearen beharretara egokitutako eskaintza pedagogiko eraldatzaile eta berritzaileak garatzen ditugu, teknologia eta material propioen bitartez.

## » Kalitatezkoa delako

Gipuzkoan emaitza onenak lortzen dituzten ikastetxeen artean gaude. Ikastolaren eguneroko gestioa Kudeaketa Aurreratuaren Ereduan (KAE) oinarritzen da. Lehiakortasunerako eta eraginkortasunerako beharrezkoak diren hobekuntzak bilatzen, topatzen eta bideratzen laguntzen digu horrek. Kudeaketa Aurreratuari diploma jasoa du Ikastolak Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Etengabe hobetzea da gure premisa.

## » Kooperatiba bat delako, irekia eta denena

Modu parte-hartzaile eta profesionalean kudeatutako herri onurako kooperatiba gara, irabazi asmorik gabea. Herrikoa eta parte-hartzailea, beraz. Bazkideek osatzen dute Ikastola eta haiek marratzu bere ibilbidea. Hala nahi duen bazkide zein guraso orok du horretan parte hartzeko aukera. Elkarlanean sinesten dugu.

## » Egonkorra eta konprometitua delako

Ikastolak bere proiektuarekin konpromiso maila handia duen lantalde egonkorra du.



**Añabitarte:**

Zamalbide auzoa, 14  
20100 Orereta - Errenteria  
08:00-13:30 / 14:00-16:30  
943 52 03 97

**Esmalteria:**

Koldo Mitxelena plaza, 6  
20100 Orereta - Errenteria  
15:30-17:30  
943 52 03 97 (luzapena: 234)

[orereta@ikastola.eus](mailto:orereta@ikastola.eus) | [www.oreretaikastola.eus](http://www.oreretaikastola.eus)

